



## Sekuentzia Didaktikoak: etorkizunerako prestatzen

Gurasoen txokoa Irakurketa saioak ikastolan  
Zertan gabiltzan Ilunpetan argi Kaskarotenean



jakintzaikastola

# agenda

## Irteerak eta ospakizunak

### IRAILA

#### LEHEN HEZKUNTZA

Maila guztiak: Donostiako zinemaldira.

### URRIA

#### HAUR HEZKUNTZA

2 urtekoak: Azokara.  
3 urtekoak: Ikastola inguruko etxe ezberdinak ikustera.  
4 urtekoak: Larraitzera udazkenaz gozatzera.  
5 urtekoak: Urbitarte sagardotegira irteera.

#### LEHEN HEZKUNTZA

3. maila: Ordizia ezagutuz, herriko mugak ezagutzeko irteera.  
4. maila: D'elikatuzera irteera.  
6. maila: Zumaiako Natur Baliabideen interpretazio zentrorira irteera.

#### DBH

1. maila: Miramonera eta Txuri Urdinera irteera.  
2. maila: Donostiako Cristina Eneara irteera.  
2. maila: Txuri Urdin izotz jauergira irteera.

### AZAROA

#### HAUR HEZKUNTZA

3 urtekoak: Parkera hostoekin jolastera.  
5 urtekoak: Parkera hostoekin jolastera.

#### LEHEN HEZKUNTZA

3. maila: Urtebuko Aikur erletegira eta Ezkio-Itsasoko zeramika tailerrera irteera.  
4. maila: Arriarango urtegira irteera: Lizarrausti, Lareo eta Joxe Miel Barandiaran museoak ikusi eta uraren inguruko hitzaldia.  
5. maila: Iruñako planetariora irteera.

#### DBH

2. maila: D'elikatuzera irteera.  
3. maila: Txuri Urdinera eta Elhuyar Fundaziora irteera.  
DBHko 2. zikloko eta Batxilergoko ikasleak: Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Kontrako ekitaldietan partaide.

### ABENDUA

#### OROKORRA

Euskararen eguna.  
Santo Tomas eguna.  
Euskal Literaturaren inguruko tertulia irekia San Inazioko liburutegi berrian.

#### HAUR HEZKUNTZA

Ikasle guztiak: Gabon bezperan Olentzeroren etorrera.

#### LEHEN HEZKUNTZA

2. maila: Xabiengo gaztelura.  
4. maila: Goierri ezagutzera.  
5. maila: Durangoko liburu azokara irteera.

#### DBH

1. maila: Zientzia museora irteera.  
3. maila: Sasietako lanketa.  
3. maila: Oihan Vegaren ekitaldia.



AMAIA AYERRA  
Jakintza ikastolako zuzendaria

## Talde sendoa

Ikasturte berriarekin bat kezka, ideia eta proiektu berriak datoz. Hezkuntza ez da geldirik dirauen zientzia eta uanean unekoari erantzuten joan beharrean aurkitzen gara. Lege berriak direla, egungo egoera ekonomikotik datozkigun premiaz betetako egoerak direla, teknologia berritzaileak direla... hezkuntza erronka eremu bilakatzen da. Bazuetan oztopoz eta zailtasunez betetako bidea batzutan, baina bide aberatsa, edonola ere, kasu guztietan.

Aurtengorako ere baditugu buruan ideiak, eta berri-berriak ez izan arren, agian modan egon ez arren, guk berreskuratu nahi ditugunak. Bereziki **hezkuntza komunitatea** osatzearena dugu ardatzean, hau da, ikastolako partaidetza sustatzearena

eta une oro ikastola bizi-bizirik sentitzearena. Eta horretan, nola ez, denok dugu egitekoa, denok erantzukizuna eta ardura. Bidea egiten jarraitu behar dugu, eta horretarako zubi berriak eraiki behar ditugu eta horietatik joz elkarlanean jarraitu.

Jakintzak 46 urtez egindako ibilbide oparo horretan oinarritu, indar hartu eta etorkizunera begira jarri behar dugu. Bideaz harro, ilusioz beterik eta oztopoei aurre egiteko prest dagoen hezkuntza komunitatea izan behar dugu. Eta bide hori oinarritzokoa behar dugu, eta zinez badugu: **pertsonak**, pertsona talde sendoa. Zaindu ditzagun bada zubiak eta sendotu bideak, horiek baitira Jakintzaren hegoak.

## Batzar Nagusiko berriak

Abenduaren 1a arratsaldeko seirak eta erdi inguru. Eguraldi tristea; bi zaparradarekin bat hasi genuen gure urteko batzarra. Urtero legez aurreko ikasturteko emaitzak izan genituen mahai gainean: emaitza akademikoak, jardun pedagogikoak eta aurtengorako lan ildoak batetik eta emaitza ekonomikoak, balantze eta diru kontuak bestetik. Baina aurtengoak bazuen azkena zen arren, beste puntu garrantzitsu bat: Azterkaritza Kontseiluaren berritzea. Lau urtez behin, bi urtetako txandetan erdi eta erdi eginez, kontseiluko kideak berritzen ditugu. Aurten hiru guraso eta bi koordinatzaile genituen berritzeko eta eraketa berria honela geratu da:

Irteten direnak: Rosa Llorente, Arrate Leunda eta Garikoitz Telleria gurasoak eta Idoia Arteaga eta Idoia Guridi koordinatzaileak. Sartzen direnak: Ana Zurutuza, Ane Hernandez eta Leire Catalan gurasoak eta Garbiñe Jauregi eta Elena Riaño etapetako koordinatzaile berriak.

Aldaketekin amaitzeko lehendakari eta lehendakari ordea berriak ere izendatu ziren. Hurrengo bi urtetarako Gabiñe Jauregi eta Ana Garmendia izanik.

**Mila esker** gure artean egon zaretenoi eta **ongi etorri** gure abenturako parte izatera animatu zaretenoill

### UN GRUPO SÓLIDO

Cada comienzo de curso surgen nuevas ideas, preocupaciones y proyectos, un nuevo camino, lleno de dificultades a veces, pero enriquecedor. Para este año también tenemos nuevas ideas, sobre todo dirigidas a complementar la comunidad: impulsar la participación y sentir que Jakintza sigue viva. Todos tenemos responsabilidad en que eso se cumpla, creando puentes que hagan posible una ikastola activa. Siguiendo el camino de estos 46 años, debemos mirar al futuro, orgullosos de lo que hemos hecho, llenos de ilusión y trabajando en grupo para superar obstáculos. En este camino necesitamos personas, un grupo sólido de personas. Cuidemos los puentes y fortalezcamos los caminos, ya que son esas las alas de Jakintza.



# Datuak datu

Gaur egun ezagunak dira kalitatea ikurtzat hartzen dituzten zenbait froga, agiri eta legedi ere. Azken hezkuntza lege berriak, paradoxikoki bada ere, halaxe dio izenburuan: Ley Orgánica para la Mejora de la Calidad de la Enseñanza. Baina kalitate hitzaren barruan helburu eta irizpide ugari biltzen dira.

Jakintza Ikastolan ere Kalitatezko Hezkuntza dugu helburu eta horretan dihardugu egunero. Azken emaitzetan solik baino, bidean jarri nahiko genuke indarra, eta

zenbakietan baino, pertsonetan. Hala ere, datuak hor daude eta esanguratsuak direnik ezin ukatu:

1.- 2014/15 ikasturtean 817 ikasle ditugu Jakintza ikastolan, 520 bat familia eta 60 irakasle inguru. Jakintzako komunitatea handitzen eta sendotzen doa, eta hori ez da kasualitatez izaten.

2.- Hezkuntza Estatistiketara joz, EAEko datu orokorrekin alderatuta, bai promozio zein gairiditze gaien datuetan gora

gaude. Derrigorrezko hezkuntzan, maila altuagoa izanda ere, gure datuak euskal erkidegoko datuen gainetik daude.

3.- Kanpo ebaluazioei dagokienaz, azken bi urtetan pasatako Pisa eta Ebaluazio Diagnostikoei erreparatu, emaitza onak eskuratu ditugu. Baina datu horietatik guretzat baliagarriena zera da: gure eguneroko jardunean zer eta nola hobetu aztertzeko eta ausnartzeko datuak ematen dizkigula.

4.- Gurasoen eta ikasleen inkestek ere beste datu batzuk ematen dizkigute: ikastolako jardun orokorra ondo baloratzen dute bai gurasoek baita ikasleek ere. Puntuazioetan gora behera batzuk ematen dira, baina orokorrean aurreko emaitzen ildotik doaz.

Datuak datu dira, eta ezin horrekin itsutu. Datuak onak izanda ere asko dugu egiteko eta aurtengoak ere izango ditu bereak!

2013/14ko promozio datuak				
Etapa	zikloa	EAE	IEko ikastolak	Jakintza ikastola
Lehen Hezkuntza	1. zikloa	%95	%98	%96
	2. zikloa	%97	%98	%100
	3. zikloa	%97	%99	%98
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza	1. maila	%91	%97	%100
	2. maila	%90	%96	%96
	3. maila	%90	%96	%98
	4. maila	%92	%96	%92
Batxilergoa	1. maila	%91	%94	%76
	2. maila	%89	%94	%94

## IRAKURKETA SAIOAK IKASTOLAN

Ondo dakizue Jakintza ikastolako liburutegia berritu dugula aurrean. Berrikuntzak asmo berriak ere berarekin dakartza kasu honetan, eta hainbat ekintza berri abian jarri nahi ditugu Jakintzan irakurzaletasuna sustatzeko. Aipamen berezia egin nahi diogu Jakintza ikastolako komunitate osoari zuzenduta izateari. Izan ere, bertako gurasoen, irakasleen

eta ikasleen artean liburu bat aukeratuko dugu eta bakoitzak bere irakurketa egin ondoren, liburuaren egilearekin elkartu eta solasaldia egiteko asmoa dugu. Egitasmoa gauzatzeko Xabier Mendigurenen laguntza izango dugu.

Ahalegina indartsu hasi dadin, lehenengo liburua ikastolak eroskiko duela jakinarazi nahi dizuegu.



Bajo el amparo de la Ley Orgánica para la Mejora de la Calidad de la Enseñanza, son cada vez más las pruebas, documentos y leyes que se basan en la calidad. Pero cuesta especificar lo que se esconde detrás de la palabra calidad, y varía según objetivos y criterios.

En la ikastola también tenemos como objetivo una enseñanza de calidad, y para ello haremos énfasis en el camino y en las personas. Pero no podemos dejar de lado nuestros datos: contamos con 817 alumnos, 520 familias y alrededor de 60 profesores. En los dos últimos años hemos conseguido muy buenos resultados en las encuestas Pisa y Evaluación de Diagnósticos, y seguimos estudiando maneras para mejorar nuestra labor diaria, y tanto padres como los alumnos valoran de manera positiva el trabajo diario de la ikastola.

Los datos siempre serán datos, y no podemos obsesionarnos con ellos, ya que aunque sean buenos, debemos seguir trabajando.

Una pequeña muestra de ello es la renovada biblioteca, y las nuevas propuestas que ello conlleva, para impulsar y estimular la afición a la lectura entre los alumnos, profesores y padres. Para ello, se elegirá entre todos un libro para leer, y después se hablará de él con el autor con la ayuda de Xabier Mendiguren. La compra del primer libro correrá a cargo de la ikastola.

# SEKUENTZIA DIDAKTIKOAK:



**Ikaslea bizitzarako konpetentea izateko ahaleginean ari gara, eta, horretarako, proiektu ezberdinak ari dira garatzen Jakintzako ikasleak. Bakoitzari dagokion mailan, mundu hobeko bat lortzeko aletxoak jartzea da helburua. Sekuentzia Didaktikoak ari gara garatzen ikasgeletan asmo hori gauzatzeko.**

Badira urte batzuk Konpetentzien lanketa martxan jartzen hasi ginela. Hezkuntza legeak aldatzen doazen heinean, ikuspegiak ere aldatzen dira eta, ondorioz, sistema eraldatu egiten da. Egoerari, legeari eta ildo metodologiko berriei leku egin nahian, Jakintza ikastolak eguneroko lanketa bideratzeko bide berriak jorratzea erabaki zuen: ikaslea bizitzarako konpetentea izatea lortu nahi badugu, bizitzako egoerak eskolara ekarri behar ditugu eta horiek suposatzen dizkieten erronkei aurre egiteko estrategiak landu behar ditu.

Oinarrizko eduki batzuetatik abiatuta, gaietako transferentziak egin eta egoerari era egokian erantzuteko bideak landu behar ditugu. Baina horretarako, ikaslea bihurtu behar dugu ardatz, protagonista, eta hala, prozesuan bere partehartze aktiboa derrigorrezkoa bihurtzen da. Bera da

ikasketaren motore eta bere interesa eta motibazioa pizteko giltzarria izaten da parte hartzeko aukera zabaltzea eta gauzatzea.

Kontestu honetan kokatzen dira Jakintza ikastolan martxan dauden Sekuentzia Didaktikoak eta Proiektu lanketak.

Etapako bakoitzak bere ezaugarrietara egokitu ditu lanketak, baina helburu berak jarraituz. Hasi HHTik eta DBHO bitarte, esperientzia ezberdinak landuko eta proposatuko dira urtean zehar. Hona hemen adibide gisa etapa bakoitzeko esperientzia sorta: DBHko ikasleek emakumearen aurkako indarkeria lantzeko egindakoa, Haur Hezkuntzako baratze proiektua, Batxilergoko Startinova egitasmoa eta Lehen Hezkuntzako proiektuen lanketa.

**DBHko ikasleek** emakumeek munduan zehar bizi dituzten egoerak

aztertu eta landu dituzte. «Mundu hau nola eta zertan hobetu daitekeen pentsatu genuen lehenengo, eta horretarako, bakoitzak bere hausnarketak karteltxo batean jarri zituen idatzita», Anjel Cuerdo irakasleak azaldu duenez.

Hausnarketa eginda, emakumeak munduan zehar duen lekua aztertze hiru eremu bereiztu zituzten: «Mundua bere osotasunean (hiruhileko honetan gure helburua izan dena), gure inguruko mundu txikia (Ordizia eta Goierri) eta azkenik gure mundu txikiagoa (gure ikastola)».

Prozesuaren hasieran abestiak, testuak, albisteak, liburuak... izan dituzte bidelagun, eta bide horretan proiektu hau guztia ikastolatik harago ere eraman behar dela ikusi dute, «ikastolaren hezkuntza komunitatean ezinbestekoa delako familia, herriko eragileak, erakundeak...».



# ETORKIZUNERAKO PRESTATZEN



Gelan bertan aritu dira lanean, taldeka, eta lanketa ezberdinak eginda. «Emakumeenganako indarkeriari aurre egiten dioten abestiak entzun eta aztertu ditugu, emakumeak ez daudela bakarrik esaten dutenak, ez dela gizon-emakumeen arteko lehia, baizik eta gizakion lana dela indarkeriari aurre egitea», azaldu du Elena Riaño irakasleak.

Hainbat egunkari ere irakurri dituzte, «benetako egoera larria dela konturatzeko. Izan ere konturatzan ginen agian baten batek pentsa zezakeela hemengo ikuspegi mugatu hori edukita gaia ez zela horren larria, baina ikusi ahal izan dugu munduko txoko askotan egoera oso larria dela».

Egunkariak, abestiak, *Desnuda* izenburudun liburua, bideoak... aztertu dituzte egoeraz jabetzeko, eta ondoren ikasle talde bakoitzak proiektu bat

garatu du. «Modu autonomoan aritu dira lanean, ikasle ekintzaileak izan dira, eta hori da lortu nahi zen beste helburuetako bat. Beraiek esan dezatela: hau egin behar dugu, eta nola antolatuko gara? Irakasleok bidelagun gara, laguntzaileak, baina beraiek erabaki dute zer, noiz eta nola egin. Egin duten lana ere beraiek baloratu dute, bakoitzak bere buruarena eta beste ikaskideena», dio Anjelek.

Ikasleek ere modu positiboan baloratu dute gaien inguruko lanketa hau, gai sozialak lantzeaz gain, horiek lantzeko modua ere interesgarria egin baitzaie.

Maddiren ustez, esaterako, «horrelako gai bat lantzeko modu ona» da Sekuentzia

Didaktikoena: **«Modu aktiboa da, zu zara gaia lantzen duena, eta nahi adina sakondu dezakezu, kontzientzia hartzen duzu.**

Beti jakin izan dugu emakumeen aurkako indarkeria ematen dela, baina orain, gehiago jakin ahal izan dugu. Adibidez, gelan landu dugun *Desnuda* liburuarekin ikusi dugu gure adinean ere ematen dela indarkeria, eta batzuetan ohikoa izan daitekeela pentsa daiteke, baina ez dela horrela barneratu dugu».

Xabirentzako «gaia lantzeko modu ezberdina izan da» Sekuentzia Didaktikoena. «Horrelako gaiak beti albisteen bidez jakiten ditugu, baina **orain, gaia beste modu batera jaso dugu eta norberak proiektuan parte hartuta errazago barneratzen da informazioa**».

Eñautek «gaia ez dela urrutikoa» ere ikasi du, «eta **inguruan zer dagoen eta zer gertatzen den ikusi dugu. Hori barneratu dugu**».

Ametz ere iritzi berekoa da: «Orain arte gaia landu izan dugu, baina batez ere beste lurralde batzuetan ematen zela ikusten genuen. Gelan landu dugun metodoaren bidez gehiago sakondu dugu, eta **gu izan gara lana egin dugunak. Orain arte beste bat izaten zen informazioa ematen ziguna**, beste pertsona bat, edo albiste bat, baina gaian guk sakondu dugunez gehiago barneratu dugu».

Kalera, Ordiziara, eta ordiziarren aurrera atera dira gelan sakondutako hori modu pertsonalean adieraztera. Giza katea egin zuten eta azaroaren 25aren inguruan antolatutako ekintzekin bat egin zuten.

Horrela, orain arte eskolan bertan geratzen zena, jendeak jaso du: «Jendeak ikusi beharra zeukan ikastolan ere lanean ari garela, eta gure ikasleak ekintzaileak direla», dio Anjelek. «Sekuentzia Didaktikoaren bidez ikasbide aurreratuarekin bat egiten du, ikasle konpetenteak direlako, arlo orokor guztiekin bat egiten duelako lanketa modu honek».

Izan ere, helburua ez da soilik gai sozialetan barneratzea, baita hezkuntzaren alorrean garrantzia duten beste balore batzuk ere lantzen.

«Norbaitek pentsa dezake gaiak modu horretan lantzeak beste arlo batzuk alde batera utzi daitezkeela, baina gu irakasle oso gustura gaude, ikasleei iniziatiba emanda alor ezberdinak landu ditugulako: testuak, bideogintza, irratigintza... Talde lana ere egin behar izan dute, idatzizkoa, ahozkoa, eta konpromisoa eskatzen duten egoeretan jarri behar izan dira. Horrekin guztiarekin, gainera, lortu nahi ditugun gainerako helburu makroekin erabat bat egitea lortzen da», azaldu dute Anjelek eta Elenak.

Orain arte egindako lana eta bidea, ordea, ez dira amaitu. Aste honetan ikasle txikiagoekin gaia lantzen jarraituko dute, antzezlan batekin. Eta datozen hilabeteetan ere, Sekuentzia Didaktikoaren bidez, Ordiziako eragile ezberdinekin lanean jarraituko dute.

## Baratzearen proiektzen ari dira Haur Hezkuntzan

Sekuentzia didaktikoen barruan, baratzearen proiektua lantzen ari dira Haur Hezkuntzako ikasleek; ez da proiektu berria, urte batzuk badaramatzagu horretan Haur Hezkuntzako eraikinean. Orain arte udaberri garaian bakarrik lantzen genuen proiektua; baina hezkuntza-kompetentzia orokorrak garatzeko proiektuan lantzen diren helburuak ugariak direnez, aurtengo ikasturtean beste urrats bat ematea pentsatu dugu, eta urte osoko proiektua izatea erabaki dugu. Izan ere, talde-lana eta komunikazioa sustatzea eta, batez ere, esparru natural batean ikasleek elkarrekin gozatzea da lortu nahi dena. Elikadura ohitura osasuntsuak bultzatzea, lurra fruitua emateko, gizakiaren eskua behar duela ohartzea, garaian garaiko produktuak ezagutzeko eta gaiarekin lotutako oinarritzko hiztegia ikastea ere badira helburuak. Landareen prozesua esperimintatzea eta landareekiko errespetuan ikasleak hezitzea ere lortu nahi da.

Baina gauza guztien gainera, irakasleen laguntzarekin, gure ikasleen parte-hartzea areagotu nahi izan dugu beraien adinera egokitutako jardueren bidez. Hala, 3 urtetik 5 urte bitarteko zortzi ikasle talde ari dira parte hartzen proiektuan. Ezertan hasi baino lehen, egutegi bat finkatu dugu ikasturte osorako lanak antolatzeko. Hala, ikasleek zein gurasoek badakite zein egunetan joango garen baratzerara. Oinetako eta arropa egokia soinean dugula, eta eguraldiak laguntzen badu, baratzerara joaten gara egun horretako zeregina betetzera: lursaila prestatu (horretarako zenbait gurasoren laguntza izan dugu, eta ikasleek harriak eta belarrak atera dituzte); bidexkak egin baratzerako lursailtxoak bereizteko eta landareak zapaldu gabe baratzean barrena lasai ibiltzeko; azokan erositako garaian garaiko landareak eta haziak erosi, landatu, eroin eta ureztatu; eta beharra dagoenean belar txarrak atera; landareen hazteko prozesua ikusi.



Bestalde, hezkuntza komunitateko kide guztien partaidetza ere proiektuko helburuetako bat denez, elkarren arteko komunikazioa indartzeko ahaleginean garrantzitsua iruditzen zaigu guraso zein aitona-amonen laguntza sustatzea. Hala, noizean behin, gurera etorriko lirakeke zenbait zalantza argitzeko eta hainbat jarduera elkarrekin egiteko. Proiektua lantzen hasi besterik ez gara egin eta oraindik goizegi da balorazioa egiteko, baina orain arte bizi izan duguna kontuan hartzen badugu, ikasleak izugarri ari direla gozatzen esan dezakegu. Eta beste proiektu askorekin gertatzen den bezalaxe, denborarekin eta beharrek sortu ahala, proiektua osatzen eta borobiltzen joango gara.

## STARTINNOVA

Azkenaldi honetan lehenengo batxilergoko neska-mutilak startinnova izeneko egitasmoan ari gara lanean. Jadanik bigarren urtea da Startinnovarekin bueltaka gabiltzala Jakintzan. Gure gazteen artean azkenaldian hainbeste entzuten den ekintzailetasuna bultzatzeko baliabide egokia da eta, bide batez, egiten eta ekiten ikasteko konpetentziak lantzeko tresna paregabea.

Egitasmoa, lau fase desberdinetan banatzen da. Lehen fasean ekintzaileek dituzten ezaugarriak ezagutzen dituzte: ikuspegia, proaktibitatea, planifikatzeko gaitasuna, komunikatzeko gaitasuna, negoziatzeko gaitasuna eta motibazioa. Bigarren fasean, enpresa-negozio eredu bat sortzeko kontutan hartu beharreko aldagai garrantzitsuenak ikasten dituzte, hala nola, merkatuaren segmentazioa, balioaren proposamena, banaketa eta komunikazio kanalak, bezeroekiko harremana, diru sarrera fluxuak, funtsezko jarduerak, funtsezko baliabideak, funtsezko aliantzak eta kostuen egitura. Hau guztia ikusi ondoren, hirugarren fasean, ikasleek ideia bat pentsatu eta ideia horretatik datorren egitasmo bat garatu behar izaten dute, noski, Produktu edo enpresa berritzaile batean oinarrituta.

Azkenik, laugarren fasean, ikasleek beraien egitasmoa jendaurrean aurkeztu beharko dute.

Startinnovak erabiltzen duen metodologia nahiko erakargarria da. Kontzeptuak bideo batzuen bitartez esplikatzeko dira gazte batzuen istorio batekin, eta kontzeptu horiek barneratu dituzten ikusteko, test moduko galdeketa egiten zaizkie gai bakoitzaren amaieran. Fase bakoitzean, gainera, ekintzaile ezberdinekin egindako hizketaldiak ikusteko aukera dute, hauek izan dituzten esperientzia, arazo eta lorpenak ezagutzeko.

Esan beharra dago egitasmo honetan Gipuzkoako hainbat ikastetxe parte hartzen dutela. Ikasleek beraien lanak bukatzen dituztenean, epaimahai independenteak baloratzen ditu. Epaimahaiak lan guztiak ikusi ondoren 5 lanik onenak aukeratu eta 5 talde horiek Donostiara joaten dira beraien lanak finalean aurkeztera. Aurkezpenaren ondoren epaimahaiak galderak egiten dizkie eta ondoren talde txapeliduna zein den erabakitzen dute. Gainera, lehen 3 taldeek sari politak jasotzen dituzte. Iaz gure taldeetako bat finalera heldu zen. Ea aurten ere lan txukunak aurkeztu eta Donostiako finalera joateko aukera dugun.

Zorte on denoi!





## Proiektuen lanketa Lehen Hezkuntzan

Euskal Curriculum 2007an onartu zenetik, gure etapan ahalegin asko egin ditugu gure jarduna behar berrietara egokitzeko. Konpetentzien ikuspegia eguneroko jardunean txertatzeak ondorio sakon eta garrantzitsu batzuk zekartzala ikusita, lehen urratsak ematen hasi ginen Txanela Proiektuak egiten dituen proposamenak geureak eginez, eta, doikuntza batzuk egin ondoren, ikuspegi desberdin bat emanez.

Nolanahi ere, segituan ohartu ginen aurrerapauso ausartagoak eman behar genituela eta Proiektu propioen diseinuari ekin behar geniola erabaki genuen. Lehen Hezkuntzako 2. zikloa izan zen lehen urratsa eman zuena Proiektu propioak diseinatuz eta eginez. Proposamen eta praktika berri horrek partaide guztien aldetik oso balorazio positiboa jaso zuen eta guztiok ikasteko oso lagungarri suertatu zen.

2. zikloko geletan hasitako bideari 3. zikloak jarraitu zion eta 1. zikloak ere bere urratsak eman zituen. Esperientzia horietan ikasitakoarekin eta Berritzegunearen aholkularitza jasoz, ikasturte honetan Lehen Hezkuntzako irakasle guztiok buru-belarri murgildu gara Proiektuen diseinurako barne-formazioan. Ikastaro horretan Ikaskuntza Kooperatiboa, Adimen Anizkunak, Pentsamendu Errutinak, Pentsamendu Kritikoa, Pentsamendu Sortzailea, Autonomia, ikasleak ahalduntzea... landu ditugu txertatzen ari garen Proiektuen diseinuan. Ezagutzak partekatuz, ideiak luzatuz eta trukatur, elkarri lagunduz... dinamika sortzaile baten atarian gaude eta, bigarren ebaluazioan aurrera eramango ditugun Proiektuak diseinatzen gabilta.

Gure metodologian ezarri nahi dugun aldaketa horrekin ikasleei protagonismo handiagoa emateaz gain, ikasleen benetako garapen integrala (adimen emozionalari behar den garrantzia emanez) sustatu nahi dugu, etorkizunerako beharko dituzten konpetentzietan trebatu nahi ditugu, ikasleen interesekin zerikusia duten gaiak bilatu nahi ditugu, mundu hobe bat sortzen laguntzeko gizartearen eragile aktibo gisan kokatu nahi ditugu, benetako problema errealak ebazten jarri nahi ditugu...

Lehen Hezkuntzan, XXI. mendean gaudela-eta eta gizartean eman diren aldaketa sakonen aurrean beste aldaketa sakon batzuekin erantzun behar dugula jakin badakigu. Ziur gaude, hartutako bideak ez duela atzera bueltarik, eta, horretarako, aldamenen behar zaituztegu, afrikar esaera zahar batek dioen bezala, haur bat hezteko tribu osoa behar da.

## Secuencias didácticas, por un mundo mejor

Ya han pasado varios años desde que comenzamos a desarrollar Competencias. Al tiempo que van cambiando las leyes de Educación, el punto de vista también va cambiando, por lo que los métodos también deben cambiar. Con el objetivo de adecuarnos a la realidad, a las leyes y a sistemas metodológicos nuevos, Jakintza Ikastola decidió desarrollar nuevos métodos para trabajar temas diarios. Queremos conseguir que el alumno sea competente en la vida, y para ellos hemos llevado a las aulas vivencias reales, para que los alumnos desarrollen estrategias y retos adecuados a cada vivencia.

Pero para ello, es necesario que el alumno sea el centro y el eje, el protagonista, y así conseguir que su participación en cada proyecto sea obligatorio. Así, será el alumno el motor de sus propios estudios, siendo el interés y la motivación la clave para la participación. En este contexto se sitúan los proyectos que se elaboran dentro de las secuencias didácticas. Cada etapa ha adecuado cada proyecto a sus características, pero todos tienen el mismo objetivo. Se plantearán distintas experiencias que se desarrollarán durante todo el curso, como por ejemplo, las siguientes:

- **EDUCACIÓN INFANTIL:** el proyecto de la huerta que han desarrollado durante años en primavera, ahora han comenzaron a desarrollarlo a principio de curso, ya que así fomentan el trabajo en grupo y la comunicación, así como la participación en un ámbito natural. Entre los alumnos de entre 3 y 5 años se han creado 8 grupos de trabajo que se van turnando en el cuidado de la huerta, donde en ocasiones, también contamos con la ayuda de padres y abuelos, los cuales nos transmiten algunos de los conocimientos necesarios para el proyecto.
- **EDUCACIÓN PRIMARIA:** con el objetivo de impulsar el desarrollo integral (dando especial importancia a la inteligencia emocional) se pretende preparar a los alumnos para que puedan responder ante las competencias del futuro. Para ello, los alumnos trabajan en equipos desarrollando proyectos basados en sus intereses, donde pueden enfrentarse a problemas reales. Así, los alumnos de la ikastola estarán preparados para ser inductores activos en la sociedad del futuro.
- **DBH:** basándose en la violencia contra las mujeres, los alumnos de ESO han explicado de primera mano los beneficios de las secuencias didácticas. Tratando el tema desde distintos prismas, han podido interiorizar más profundamente la realidad que se esconde detrás de este tema. Para ello han utilizado noticias, libros, canciones, videos... lo cual les ha llevado a trabajar en grupo. Según han contado, las secuencias didácticas les ayudan a profundizar en distintos temas «de un modo más activo, mediante nuestra participación, sin que nadie nos diga nada, descubriendo nosotros mismos la realidad que nos rodea». Todo ello, teniendo como base los objetivos educativos que se pretenden conseguir en cada nivel.
- **DBHO:** los alumnos de bachiller participan en el proyecto startinova, el cual busca generar el espíritu emprendedor de ellos mediante el desarrollo de proyectos. Divididas en distintas fases, los alumnos deben planificar un proyecto de negocio, desarrollarlo durante el curso y si son elegidos, defenderlo en la final del proyecto ante un jurado independiente. En el proyecto startinova, los alumnos de Jakintza tendrán que demostrar sus habilidades y conocimientos ante el resto de colegios de Gipuzkoa.



## 4 URTEKOAK INURRITEGI BILA



Aurtengo ikasturtean 4 urtekoak inurritegiaren proiektua gauzatzeko garaian berrikuntza batekin ausartu dira. Orain arte egin ohi izan den maketa alde batera utzita, benetako inurritegien bila irten dira inguruko parkeetara. Zein ederki pasa duten gure neska-mutikoeek, pala eskuetan hartuta, inurritegiak inurri eta guzti bilatzen eta biltzen. Modu honetan, benetako inurritegiak gelan bi astez edukita, inurrien lan egiteko modua behatu ahal izan dute eta, beraien zaintzaz arduratu dira, noski! Inurria eta Tximitaren ipuinean ikasi duten bezalaxe, inurriak zein langileak diren ikusteko aukera izan dute bertatik bertara!

## 5 URTEKOAK SAGARDOTEGIAN

5 urtekoek ere proiektu polita gauzatu ohi dute urtero, udazken garaiko hostoak, fruituak eta perretxikoak bildu eta erakusketa baten bidez inguruko ezagutarazteko helburuarekin. Horrez gain, sagarrak jateko ez ezik, beste zerbaitegarako ere erabiltzen direla ikasi dute aurtengoan. Nola ordea? Ba Ataun Urbitarte sagardotegira joanda.

Bertan, sagardoaren prozesua oso gertutik ikusteko aukera izan dute gure txikitxoek eta begiak erne-erne eta belarriak adi-adi zituztela sagarrak garbitzen, txikitzen eta haueztatik muztioa nola ateratzen den begira txundituta egon dira. Zenbait probatzera ere ausartu da. Oso esperientzia berezia eta polita bizi izan dute gure ikasleek Ataun aldean!



## DENOK BAT!!

Beharra dutenekiko elkartasuna adierazteko hamaika bide daude; gure aurtengo 6.mailako ikasleek, adibidez, bi ikasturte hauetan aurkitu dute laguntza hori ahalbidetzeko biderik.

*Design Thinking* dinamikatik abiatuta, munduko pobrezia inguruko artikulu bat izan zuten gelan hizpide. Eztabaida horretatik sortutako ideiak eta ekarpenak bideragariak eta eraginkorrak izan daitezten, hainbat bilera egin ditugu taldeka, ikastolako eta herriko eragileekin: zuzendaritza, udala, Karitas...

Ordiziar ugarik gabezia dezente zituela jakitun, hainbat ekintza antolatuta zituzten: euren asmoaren beri eman, arropa eta janari-bilketa egin, azokan diru-bilketa antolatu (pultserak eta pegatinak salduz)... Eta guztia helburu zehatz batekin: DENOK BAT aberastasunaren banaketa bidezkoaren alde, laguntasunaren alde!



Los alumnos de 4 años han podido conocer de primera mano como trabajan las hormigas. Han salido al parque y han recogido hormigueros, los cuales han tenido en la clase para ver como viven las hormigas en ellos. Pala en mano, no han dudado en hacer agujeros para poder llevar las hormigas a clases, donde han visto como trabajan. Pero no han sido lo únicos que han salido de clase para disfrutar de la naturaleza. Los alumnos de 5 años han aprendido como se hace la sidra en la sidrería Urbitarte de Ataun. Han podido participar en el proceso de elaboración de la sidra limpiando y cortando las manzanas y haciendo el mosto.

Los alumnos de sexto han aprendido que hay diversos medios para ayudar a los que más necesitan. Mediante el proyecto *Design Thinking* han trabajado en equipo, han discutido y analizado qué métodos y aportaciones pueden servir para ayudar al que más necesita. Así, han colaborado con distintos organismos, han vendido pulseras y pegatinas, han recogido ropa y comida... y todo con un mismo objetivo: todos a una para un reparto justo de la riqueza!!



## DBH 3KOAK EKINTZAZ EKINTZA

Abenduaren bueltako egunak ekintzaz beteak izan dituzte Jakintzako DBH 3ko ikasleek. Azaroaren amaieran Donostiara irteera egin zuten. Txuri Urdinera joan ziren izotz patinajea egitera eta handik Elhuyarrek Lasarten antolatutako tailerretan zenbait esperientzia bizitzeko aukera izan zuten.

Irteera interesgarri horren ondoren, hilaren 15ean, Sasieta Mankomunitateko arduradunen bisita jaso dute. Birziklapenaren inguruko

saioa egin dute Sasieta arduradunen laguntzarekin.

Horiez gain, Ikastola parte hartzen ari den *Jolas eta Ekin* bizikidetzaren proiektuaren barruan, Gasteiztik etorriko den monitorearen baten laguntzarekin egitasmoaren bigarren saioa egingo dute. Ondoren, hor landutakoan oinarrituta HERRITARTASUNA gaian sakondu eta garatuko dute lana.

## LIBURU ARTEAN BLAI

A ze zortea 5.mailakoena! Aurten aukera izan dute abenduan egin ohi den Durangoko Liburu Azokara joateko, eta ez dira damutu, ez horixe!

Landako Erakustazokara iritsi orduko arrapaladan sartu dira gure neska-mutikoak azokara. Sagu ganbarara joan dira lehenengo eta han itzalen magia ezagutu dute. Ekintza ugari egin dituzte tailer horretan eta ez dituzte berehalakoan ahaztuko horko bizipenak.

Ondoren liburu azokan bueltatxo bat eman diote, liburu artean murgilduta ibili dira, zeinen usain gozoa liburu berriena! Ezagutu dituzte azkeneko lanak, jaso dituzte opariak, oroigarriak etabar. Bertan bazkaltzeko tarte ere hartu dute eta gustura itzuli dira etxera.

Ziur aski bat baino gehiagori irakurzaletasuna piztuko zizaien. Bejondeiela!

## ONGI ETORRI LEHENENGO MAILARA!

"Handia" naizenez, gutxi barri ikastola handira joan beharko dudala esan didate. Handia baino gehiago erraldoia ikusi izan dut nik beti, gaztelua bailitzan. Kontrajarritako emozioak ditut: jakinmin pixka bat bai, baina baita beldur ikaragarria ere! Gurasoak ere antzeratsu, beraien begietan segurtasun eza eta kezka antzematen baitituzte.

Eguna iristean ezinegonak bahitu nau: lagun minari eskutik heldu, ondo estutu, eta aldaparen goiko aldean dagoen herensuge horregana eraman dut ausart, borrokarako prest! Hurbildu ahala, mamu beldugarria sugandila bilakatu da, eta bat-batean gurekin eta beste ume batzuekin aritu da jostari goiz osoan.

Egunen joan-etorrian sentimenduak zeharo aldatu dira. Bihotz txikiak esaten dit ea ez ote den denborarekin sugandila printzesa bihurtuko berarekin ezkontzeko, gurasoek andereñoarekin ezingo naizela inoiz ezkondu esan arren.



Han sido unas semanas muy intensas para los alumnos de 3 de ESO, llenas de actividad. Comenzaron con la salida a San Sebastian para patinar sobre hielo en Txuri Urdin y la visita al museo Elhuyar, para seguir con la visita que recibieron de los responsables de Sasieta para hablar sobre la importancia del reciclaje. Además han participado un año más en el proyecto Jolas eta Ekin. Los alumnos de quinto curso, han viajado hasta la feria del libro y disco de Durango.

También tendrán la oportunidad de vivir todas esas experiencias los alumnos que este año han comenzado el curso en la ikastola grande. Una vez superados los miedos y los temores del primer día, el dragón les parecerá una lagartija, y con el tiempo se ira convirtiendo en princesa!!

# ILUNPETAN ARGI KASKAROTENEAN



Gaur goizean, atsedenaldiaren ondoren, argiak itzalita arituko garela lanean esan digu andereñoak. Guk, harriduraz, zergatik galdetu diogu eta hau kontatu digu:

Bazen behin... Ez, bazen behin ez. Kontatu behar dizuedana ez baitzen aspaldian gertatu, oraintxe bertan baizik. Beraz, bada, hemendik ez oso urruti, Ziburu izeneko herri txiki bat, oso polita gainera. Hango hamahiru haurrek ikastolara joan nahi dute, euskaraz jolastu nahi dute, euskaraz irakurri,

eta margotu eta matematikako ariketak egin eta ... Euskaraz hazi eta hezi nahi dute. Baina, ez dute ikastolarik. Horregatik, hutsik dagoen herriko etxe batean egiten dituzte ekinza horiek guztiak. Gustura dabilta etxe horretan, horixe baita beraien ikastola.

Herri horretako agintariei zer bururatuko eta etxe horretan euskaraz eskola ematea galaraztea bururatu zaie. Etxe horretatik kanpora bidali nahi dituzte. Andereñoak eta haurrak esan diete ez dutela beste lekurik, ez dutela nora joanik. Hala ere, herriko agintariek argia kendu diete ez daitezen sartu.

Ziburuko neska-mutikoak andereñoarekin batera hor aritu dira, egunero bezala, lanean argirik gabe, baina ez ilunpetan. Oso argi baitute euskaraz bizi nahi dutela.

Eta orain, ados bazaudete, guk ere gure elkartasuna, gure eskua luzatuko diegu Ziburuko lagunei eta ordubete honetan argiak itzalita arituko gara lanean.

Baaai! handi bat atera zaigu guztioi bame-bametik eta sekula baino indartsuago, alaiago aritu gara lanean Ziburuko ikasleekin bat eginez; guk ere euskaraz bizi nahi baitugu.

Lanean ari garela pentsamendu hau dabilkigu buruan: oraindik ere badela jendea, nahiz eta argi guztiak piztu, ilunpetan bizi dena.

## Oihan Vegaren bisita

DBH 3koek Oihan Vegaren bisita jasoko dute abenduaren 18an. Saio erakargarria, dibertigarria eta gustukoa izango da ziur.



## LUZ EN LA OSCURIDAD DE KASKAROTENEA

Hoy, después del recreo, la profesora nos ha dicho que trabajaremos a oscuras. Nosotros, extrañados, le hemos preguntado por qué, y nos ha contestado esto:

Erase una vez... No, erase una vez no. Lo que os voy a contar no pasó hace muchos años, esta pasando ahora. No muy lejos de aquí, hay un pueblo muy bonito llamado Ziburu. 13 niños de esta localidad quieren ir a la ikastola, quieren jugar, leer, pintar y aprender en euskara. Quieren crecer y educarse en euskara, pero no tienen ikastola. Por eso, realizan todas esas actividades en una casa vacía.

A las autoridades de Ziburu no les parece bien y les han prohibido impartir clase en euskara en ese edificio, por lo que les han cortado la luz. Los niños y la profesora han manifestado que no desean abandonar su ikastola, que quieren vivir en euskara, y han decidido seguir trabajando a oscuras.

Y ahora, si estáis de acuerdo, nosotros les mostraremos nuestro apoyo, les tenderemos una mano a nuestros amigos de Ziburu, y la siguiente hora trabajaremos sin luz.

Siii!!!! hemos gritado todos, un grito que nos ha salido de las entrañas, y más fuerte que nunca. Hemos trabajado más alegres pensando en los alumnos de Ziburu, porque nosotros también queremos vivir en euskara.

Mientras estamos trabajando, una idea ronda en nuestra cabeza: que todavía hay gente que, aunque encendamos todas las luces, sigue viviendo a oscuras.



# irteerak

## Donostiako txokoez gozatu dute DBHko 2 mailako ikaslek

Urriaren 30ean, goizean goiz autobusa hartu eta Donostiara abiatu ginen. Lehendabizi, Kristina Eneako parkean gelditu ginen eta, egia esateko, ikusgarria zegoen inguru guztia. Hasteko, Kristina Eneako jauregiaren historia ezagutu genuen eta ondoren bi taldetan banatuta jarduera aztertzen zituen bitartean, besteak olioa birziklatzeko tailerra egin zuen. Eguerdia gerturatzearekin batera, Anoetako estadiora hurbildu ginen. Patxada ederrean bazkaldu eta gero sartu ginen Txuri Urdin izotz jauregira. Gozatu ederra hartu eta gustura itzuli ginen denok Ordiziara.

Gure ikasleek oso gustora ibili zirela esateaz gain, ziur gaude berriro errepikatzeke gogoz geratu direla.



## 2.mailakoak Xabierren

Erdi Aroko lanketa gauzatzearekin bat, Nafarroako gaztelu eta ingurune paregabera egin zuten txangoa bigarren mailako ikasleek. Erregeen eta printzesen istorioetan murgildu eta egun zoragarria pasa zuten.







Azken ilaran: Arkatiz Etxabe, Aranzabal eta Lopez Rekarte.

Zutik: Ander Ormaetxea, Lander Muñagorri, Raul Jimenez, Ekain Perez de Arenaza, Joseba Moure, Joseba Apaolaza, Aitzol Arruabarrena, Mikel Yarzabal, Asier Imaz, Eneritz Garmendia, Jaione Odriozola eta Ilazki Azaldegi.

Behean, ezkerretik hasita: Iñigo Marotias, Beñat Martin, Maria Valdivielso, Natale Sanz, Izaro Insausti, Maitane Salceda eta Amaia Azurmendi.



**jakintza**ikastola

Altamira auzoa z/g  
tfno. 943 16 05 40  
faxes. 943 16 07 90  
20240 ORDIZIA  
ordizia@ikastola.net



**ikastolen**elkartea